

Hamaika erronka, hamaika konpromiso.

GELDIEZINAK

1. Lana eta aberastasuna birbanatzearen alde

Gure helburua pertsona guztien ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzea da. Horretarako funtsezkoa da lana banatzea eta lehenbailehen lanaldi-murrizketari buruzko eztabaidari ekitea, soldatak jaitsi gabe. Adostasunak biltzen eta neurriak hartzen aurrera egin behar da soldata duinak bermatzeko eta soldata-arraila murrizteko. Lanbide arteko akordioak defendatuko ditugu, Nafarroako batez besteko soldatari egokitutako LGS propioa lortzeko, bai eta KPlaren arabeko soldata-igoerak lortzeko ere.

Halaber, aberastasuna eta justizia soziala birbanatzea helburu duen esku-hartze publikoa garatzearen alde egiten dugu. Ildo horretan, Banka Publikoa eratzeak edo zerga-politika eraldatzea, ekarpen komunitarioa den heinean, pertsona guztien bizi-kalitatea bermatzea izan behar dute helburu.

2. Kalitatezko osasun-sistema publiko baten alde

Beharrezkoa da osasun-sistema publiko unibertsala bermatzea, bakarra, sistemaren ardatz gisa lehen mailako arretan oinarritua eta itxaron-zerrendetan ere eragina izango duena. Prebentzio-orientatorako eta osasuna sustatzeko sistema publiko bat, ikerketa publikoa bultzatuko duena eta enplegu- eta lan-baldintza duinetan oinarrituko dena.

Datorren legegintzaldiaren helburu nagusia da osasun-sistema osoa berrantolatzeke oinarriak jartzea, Osasunari buruzko Foru Lege berri bat eginez, finantzaketa nahikoa izan dadin eta osasunaren dimentsio osoari hel diezaion, Osasun Mental Komunitarioko politika sustatuz eta Osasun Publikoa eta Lanekoa indartuz.

3. Etxebizitza benetako eskubidea izan dadin

Etxebizitza duin eta eskuragarria izateko oinarritzko eskubide unibertsala bermatzea lehentasunezkoa da. Horretarako, alokairu publikoa bultzatuko dugu, etxebizitza hutsak erabiltzeko politika eraginkorrak abiatuz, alokairuen gehiegizko prezioa kontrolatuz edo gazteen emantzipaziorako neurri espezifikoak hartuz, hala nola dotazionalak izango diren bizitokiak.

Gainera, sektore publikotik etxebizitzak zaharberritzeko laguntza gehiago sustatu behar dira, eta etxebizitza kolaboratiboen eta komunitarioen proiektu kooperatiboak bultzatzeko prozedurak arindu.

4. Zaintza sistema publiko eta komunitario sendo baten alde

Zaintza-sistema publiko indartsu bat sortzea dugu helburu, merkatu pribatuak sustatzen duen espekulazio eta merkantilizazioa bazterrean utziz. Helburua pertsona guztiek baldintza onenetan zaintzeko eta zainduak izateko duten eskubidea bermatzea izan behar da, eta horretarako funtsezkoa da lehendik dauden zerbitzu publikoak indartzea eta zabaltzea, hala nola eguneko zentroak edo etxez etxeko arreta, eta beste zerbitzu berri batzuk sortzea, modu ekitatiboan Nafarroa osoan.

Funtsezkoa da mendekotasunari, desgaitasunari eta adinekoei kalitatezko arreta ematea, ahal den neurrian egoitzekiko alternatibak sustatuz. Eta arreta adingabeengan jarri behar dugu, baita benetako kontziliaziorako eta erantzunkidetasunerako politikak bultzatzean ere.

5. Trantsizio energetiko eta ekologikoa justu eta demokratikoa izan dadin

Larrialdi ekologiko eta klimatikoaren testuinguru honetan, beharrezko trantsizio energetiko eta ekologikoa burutzearen aldeko apustua egiten dugu, irizpide justu eta demokratiko batzuen gainean. Lehenik eta behin, ohituretan eta ekoizpen-moduetan aldaketak sustatzea ezinbestekoa izanen da kontsumoa murrizteko, berrerabiltzea, birziklatzea eta errebalorizazioa funtsezko ardatz izanik.

Bestalde, energia berriztagarriak hainbat eskalatan sustatuz, autohornikuntzarako tokiko energia-komunitateetatik hasi eta industria-beharrei ere erantzuten dieten eskualde-mailetaraino. Beharrezkoa da plangintza ordenatua eta orekatua eta ingurumen-irizpide argiak izatea, eta, horretarako, beharrezkoa da Nafarroako Energia Agentzia eratzea. Sistema energetikoa demokratizatzearen aldeko apustua egiten dugu, partaidetza publikoa eta komunitarioa bultzatuz, lurraldean eta herritarrentzako prezio eskuragarrietan itzuliz.

6. Lurralde-antolaketa eredu orekatu eta jasangarri baten alde

Ongi egituraturatuko eta kohesionaturatuko Nafarroa eraikitzeko ezinbestekoa da despopulazioari eraginkortasunez aurre egitea eta lurralde-garapen orekatua bermatzea. Horretarako, beharrezkoa da diziplina anitzeko ikuspegi eta estrategia, tokiko mapa osoa garatu eta kalitatezko zerbitzu publikoak bermatuko dituen; despopulazioaren eta landa-garapenaren erronkari ekintza positiboko tresna juridikoen bidez helduko dion estrategia, hala nola Foru Lege integral bat; lehen sektorea indartzea, elikagaien subiranotasuna kontuan hartuta, eta hori hemen ekoiztean eta kontsumitzean oinarritu behar da, gure gizartearen beharrak asetzeko eta nekazaritzaren eta abeltzaintzaren etorkizuna bermatzeko.

Era berean, mugikortasun jasangarri eta lurraldearen bertebratzaile izango den ereduarekin konprometitzen gara, dauden trenbide-lineak hobetzearen, egungo garraio publikoaren sarea zabaltzearen eta ibilgailu partikularraren erabilera partekatuko sare bat sortzearen alde eginez.

7. Gazteentzako orainaldi eta etorkizun duin baten alde

Gazte-politikak zeharka landu behar dira, gazteen zailtasunak, azken batean, gizarte osoa inplikatzen duten gizarte-arazoak baitira. Helburua, beraz, gazteek beren ikasketa, lan eta bizitza proiektuak Nafarroan (enplegua, etxebizitza, zerbitzuak, aisialdia eta kultura, mugikortasuna, partaidetza komunitarioa...) garatu ahal izateko beharrezko baldintzak bermatzea da.

Horretarako, neurri integralak bultzatuko ditugu, Gazteriari buruzko Foru Lege berri baten esparruan, gazte independente gisa etorkizuna ere eraikitzen hasteko, beren bizi-eredu eta -proiektuak garatzeko gaitasuna izango duena.

8. Hezkuntza sistema propio, publiko eta komunitario baten alde.

Gure helburua Hezkuntza Sistema Publiko eta Komunitario propio eta kalitatezkoa eraikitzea da. Konpromisoa hartzen dugu gogoeta eta eztabaida prozesu partekatu bat abiatzeko Hezkuntza Itun bat posible izan dadin, Hezkuntzako Foru Lege bat egitea helburu izango lukeena. Prozesu horretan lan egingo dugu Hezkuntza sistema gizarte-kohezioaren eta komunitatearen zerbitzura jartzeko, eta bide horretan eskola-segregazioaren aurkako borroka lehentasunezkoa izanen da, horrek ekarriko dituen arau-aldaketekin. Era berean, hezkuntza despopulazioaren aurkako borrokaren erdigunean jartzearen aldeko apustua egiten dugu, landa-eskolen sarea indartuko duen plan estrategikoa sustatuz.

Horrekin batera, hezkuntza-sistema deszentralizatuagoa lortzeko konpromisoa hartzen dugu, tokiko erakundeek eta hezkuntza-komunitateek parte hartzeko eta erabakiak hartzeko gaitasun handiagoa izan dezaten, eta ikastetxeen eta hezkuntza-proiektuen autonomia bultzatuz. Proiektu horietan, gainera, helburuetako bat ikasleen hizkuntzen ikaskuntzan aurrera egitea izango litzateke, tratamendu integratu baten bidez, behar bezalako hizkuntza-gaitasunak lor daitezen eta ikasle guztiek euskararen gutxieneko ezagutza izateko duten eskubidea bermatuz.

9. Kultura-erronkaren kudeaketa demokratiko eta inklusiboa izan dadin.

Nafarroak hizkuntza- eta kultura-ondare anitza eta aberatsa du, eta erronka da aniztasun kultural hori demokratikoki kudeatzea, gizarte-koheziarako tresna baliagarria izan dadin. Horregatik paradigma berri bat proposatzen dugu, Nafarroan hizkuntza eta kultura anitzeko politika demokratikoa eta inklusiboa sustatzeko.

Bi ardatz nagusi jorratu behar ditugu: batetik, euskal kultura sustatzea eta euskara, hizkuntza gutxitu den heinean, normalizatzaren alde lan egitea, hizkuntza-eskubideak defendatuz eta ezagutza sustatuz, zeina doakoa izan behar baita nahi duenarentzat, eta, bestetik, erabilera soziala, eremu publikoan eta pribatuan. Bigarrenik, Nafarroatik kanpo etorri diren hizkuntzak eta kulturak baloratuz, aitortuz eta errespetatuz, politika inklusiboak eta zeharkakoak antolatuz.

10. Berdintasun-politikatik politika feministetara jauzia egitearen alde.

Hurrengo legegintzaldirako gure helburua berdintasun-politikatik benetako politika feministetara jauzi egitea izango da, horrek eskatzen duen dimentsio osoa aintzat hartuz eta politika guztietan zeharlerrotasunez lan eginez, tokiko zaintza-itunak bultzatuz, bereziki.

Beharrezkoa da Nafarroako Berdintasunerako Institutuak egiten dituen politikak sustatzen jarraitzea, gutxienez aurrekontu osoaren % 1era iris dadin finantzazioa. Nafarroako administrazio publiko guztiak inplikatzeko proiektuak eta ekintzak gauzatzeko behar beste giza baliabide eta baliabide material esleitzea ezinbestekoa izanen da indarkeria matxistei aurre egiteko eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna eta LGTBI+ pertsonentzako eskubide guztiak lortzeko.

11. Bizikidetzaren eta parte hartzearen sustatuko duen gobernantza demokratikoaren alde.

Gardentasuna, parte-hartze politiko, sozial eta komunitarioa, ustelkeriaren aurkako borroka eta Nafarroako erakunde eta administrazio publikoen demokratizazioa lehentasunezko helburua dira EH Bildurentzat, pertsona guztientzako eskubide guztiak bermatuko dituen bizikidetzaren demokratikoari lotuta.

Zentzu horretan, eskubide guztiak bermatzeko, beharrezkoa da autogobernurako eta Nafarroaren subiranotasun handiagorako tresna guztiak bultzatzea, Nafarroako herritarren borondatea eta Nafarroa bidezkoago eta demokratikoago baterako autogobernu-eredua termino politiko, ekonomiko eta sozialetan erabakitzeko nafar jendartearen eskubidea aitortuz eta errespetatuz.